



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

AZTERKETARIA

LEHEN DEITURA

BIGARREN DEITURA

IZENA

NAN

EGUNA: 2008ko ekainaren 2a



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. *“Aspaldi daukat gazte hori begiz jota. Ez dit batere kasurik egiten, _____.”*
 - a) ordea
 - b) berriz
 - c) hain zuzen
 - d) baizik

2. *“Aginduak gorabehera, lanera joan zen”*. Zein da aurreko esaldiaren baliokidea?
 - a) Aginduak agindu, lanera joan zen.
 - b) Agintzearren lanera joan zen.
 - c) Agindu ziotenez gero, lanera joan zen.
 - d) Agintzeagatik lanera joan zen.

3. *“Ahalegindu zara. _____, ez duzu gauza handirik lortu.”*
 - a) Haatik
 - b) Orobat
 - c) Izan ere
 - d) Honenbestez

4. *“_____ dagoen herrian bizi da Anttoni”*. Aukeratu ezazu egokiena, hutsunea betetzeko.
 - a) Mendiaz bestalde
 - b) Mendiko bestaldean
 - c) Mendiz bestalde
 - d) Mendiaz bestaldean

5. *“Aurten _____ eskariak jaso ditugu laguntza-zerbitzuan.”*
 - a) zenbait familiren
 - b) zenbait familiaren
 - c) zenbait familien
 - d) zenbait familiakoen

6. *“Berandu baldin bazatoz, ez duzu izango _____.”*
 - a) autoa non utzirik
 - b) autoa non uzteko lekurik
 - c) autoa non uztea
 - d) autoa non uztekorik



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

7. “Bada gure herrian familia bat _____.”
- Txiletik etorri dela
 - Txiletik etorri dena
 - etorri dela Txiletik
 - zeina Txiletik etorri da
8. “Agindu zigun, eta bulegoko _____ ordaindu digu gaurko bazkaria”. Zein da zuzena?
- zuzendari berak
 - zuzendaria berak
 - zuzendariak berak
 - zuzendari berberak
9. “Dirua aldean eramateko _____ aitonak”. Zein dago **oker**?
- dio
 - diosku
 - zion
 - zioen
10. “Eguneroko ohituretan alde handia dago Afrikako beltzen eta European bizi _____ artean.”
- daitezkeen
 - diren
 - direnaren
 - direnen
11. “Nork edo nork egin beharko du, aurrera segitu nahi bada”. Zein da aurreko esaldiaren baliokidea?
- Edozeinek egin beharko du, aurrera segitzekotan.
 - Aurrera segituko bada, baten batek egin beharko du.
 - Aurrera segitu arren, norbaitek egin beharko du.
 - Edonork egin beharko du, aurrera segitzen bada ere.
12. “Oso ezaguna da Donostian urtero urtarrilaren 20an izaten den _____ .”
- danborrada
 - danborraldia
 - tamborrada
 - tanborrada
13. Aukeratu ezazu hemen aipatu nahi den deialdiaren izenburu egokiena, lau aukeren artean.
- Bekadun hautatzeko proba-deialdia.
 - Bekadunak hautatzeko probarako deialdia.
 - Bekadunen hautatze-proba deialdia.
 - Bekadun-hautaketa-probarako deialdia.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

14. Aukeratu ezazu egokiena: “Beste _____ ikasleak nahi ditugu gure eskolan.”
- motako
 - motatako
 - mota bateko
 - mota batzutako
15. Aukeratu ezazu esaldi zuzena.
- Etxeko lan guztiak biharkorako egin behar dituzu.
 - Bere gurasoengandik maitatua hazi zen Jon.
 - Pellotaz esan dituzten guztiak okerrak dira.
 - Zuzendari hautatu dutenetik, lanpeturik dabil Eider.
16. Aukeratu ezazu esaldi egokiena.
- Ez du zertan egia izan behar.
 - Ez du zertan egia izan beharrik.
 - Ez du zertan egia izan.
 - Ez du zergatik egia izan beharrik.
17. Aukeratu ezazu esaldi zuzena.
- Zenbat eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, gero eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Hainbat eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Zenbat eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Gero eta zorrozkiago alderatu bi lege horiek, hainbat eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
18. Aukeratu ezazu hitz segida zuzena, esaldi honetako hutsuneak betetzeko: “*Katiluaren kolorearen _____ tearen _____ ere aldatu egiten ote den jakin nahi zuen norbaitek _____.*”
- arabera saporea lehengunean
 - arabera zaporea lehengo egunean
 - arauera saporea lehengo egunean
 - arauera zaporea lehengo egunean
19. Aukeratu ezazu hitz segida zuzena, esaldi honetako hutsuneak betetzeko: “*Ez dago _____ multiploa izanik _____ multiploa ez den zenbakirik; ez dago halakorik.*”
- 4ren 2aren
 - 4en 2en
 - 4en 2ren
 - 4ren 2ren



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

20. Aukeratu ezazu honako esaldi honen jarraipen egokia. *“Zaude isilik, ez ezazu astakeria gehiagorik esan! Hau lotsa! _____”*
- Edonork entzuteagatik!
 - Inork entzunda ere!
 - Baten batek entzutea ere!
 - Norbaitek entzunagatik!
21. Aukeratu ezazu **oker** dagoen esaldia.
- Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain handia da, non prezioek behera egingo duten.
 - Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain handia da, prezioek behera egingo dutela.
 - Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain da handia, prezioek behera egingo dute.
 - Aurrerapen teknologikoen ondorioz, produktibitatearen hazkundera hain handia da, ezen prezioek behera egingo baitute.
22. Aukeratu ezazu **oker** dagoen esaldia.
- Gabriel Langarika, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - Hezkuntza batzordeburu Gabriel Langarikak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - Gabriel Langarika Hezkuntza batzordeburuak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - Gabriel Langarikak, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
23. Aukeratu ezazu **oker** dagoen esaldia.
- Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamar urtetan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
 - Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek hamar urtean egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
 - Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamarkadan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
 - Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamar urteetan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.
24. Aukeratu ezazu zuzen idatzia dagoena, Las Cañas urtegiari buruzko esaldi hauetan.
- Guardiako antziren kasuan bezalaxe, Las Cañas urtegi sumeak ere jatorri endorreikoa du.
 - Hegaztientzat obra ostopo izan gabe, pausaleku eta bizileku bihurtu zen urtegia.
 - Oion eta Viana herrien artean dago, eta 1987an erreserba izendatu zuen Nafarroako Gobernuak.
 - Orain dela hamarkada batzuek ur lamina haundiagotu zuten, ureztatze sistema egokitzeko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

25. Aukeratu ezazu zuzen idatzia dagoena.

- a) atzak
- b) atzamarrak
- c) hatzaparrak
- d) hazazkalak

26. Aukeratu ezazu zuzen idatzia dagoena.

- a) haitzurra
- b) haizkora
- c) igitaia
- d) zega

27. Aukeratu ezazu zuzen idatzia dagoena.

- a) Herbestean eman zituen lau zpabost urte.
- b) Hertz unitatea da fisikan maiztasuna neurtzeko erabiltzen dena.
- c) Hertzainak etorri dira zinegotziak babestera.
- d) Hertzetara begira geratu zen ezer esan gabe.

28. Aukeratu ezazu zuzen idatzia dagoena.

- a) Nire ustetan, "Internetek" aukera zabala eskaintzen digu informazioa bilatzeko.
- b) Nire ustetan, Internetak aukera zabala eskaintzen digu informazioa bilatzeko.
- c) Nire ustetan, *Internetak* aukera zabala eskaintzen digu informazioa bilatzeko.
- d) Nire ustetan, Internetek aukera zabala eskaintzen digu informazioa bilatzeko.

29. Aukeratu ezazu zuzen idatzia dagoena.

- a) zenbagarren
- b) zenbakarren
- c) zenbatgarren
- d) zenbatkarren

30. Aukeratu ezazu zuzena: "Ez da larruzkoa, _____ plastikozkoa."

- a) are
- b) ezpada
- c) ordea
- d) ezen

31. Aukeratu ezazu zuzena: "Joakinek bere buruaz beste egin _____ zurrumurrua zabaldu da."

- a) duen
- b) duelaren
- c) duelakoaren
- d) duenaren



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

32. Aukeratu ezazu zuzena: “Zortzi eta erdietako _____ zutik etorri naiz.”
- trenan
 - trenez
 - trenaz
 - trenean
33. Hauetako bat **okerra** da euskara batuan.
- Zuek zindoazten.
 - Zuk zenekarren.
 - Guk generaman.
 - Zu zebiltzan.
34. Hona hemen larruazala sendatzeko edo edertzeko erabil daitekeen zenbait gai. Horietako bat **okerra** da.
- jariakina
 - krema
 - lozioa
 - ukendua
35. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
- Berehala antzeman nion lankideari egun hartan oso nekaturik zetorrela.
 - Erabakia hartu aurretik, arazoa ongi ikasteko aholkatu digute.
 - Gela batean ikasle gehiegi izateak ez du baimentzen haietako bakoitzari kasu egitea.
 - Ikasleek uste dute Bolognako sistema berriak lan handia suposatuko diola ikasleari.
36. Honako esaldi hauetan guztietan erabili da *-eria* atzizkia. Baina horietako bat **okerra** da.
- Gizateriaren aurkako krimenak zigorrik gabe geratzen dira maiz.
 - Irakasleria ez da lanbide erraza, nahiz eta batzuek hori uste duten.
 - Sekulako umeteria bildu zen plazan herriko jaiak hastear zirela.
 - Tresneriarik egokiena aukeratu behar dugu laborategia hornitzeko.
37. Honako esaldi hauetan guztietan erabili da *-kin* atzizkia. Baina horietako bat **okerra** da.
- Aitortu beharra dago Ibaetako eraikinak, oro har, Leioakoak baino berriagoak direla.
 - Bizar apur hauek mozteko nahiago dut aitzurtzua bizarkin elektrikoa baino.
 - Kontu pixka bat izan ezazu bihurkin hori erabiltzean, oso astuna da eta.
 - Zenbait prestakin ditugu hautatuak mikroskopiako praktiketarako.
38. Honako hitz hauek ahoskatzean, <j> letra beti berdin ahoskatzen dugu, batean izan ezik. Zein da besteak ez bezala ahoskatzen dena?
- jateko
 - jauna
 - jertse
 - jokalariak



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

39. Honako kirol hauen izenen artean bat bakarra dago zuzen idatzia.
- errugbya
 - esku-baloia
 - sokatira
 - tiro-olinpikoa
40. Lanean ikusi nuen egun osoan, eta, lana bertan behera uzteko esan nion arren, hartan _____ gauerdira arte.
- jarraitu zen
 - jarraitu zuen
 - segitu zen
 - segitu zion
41. Liburuaren sarrera edo aurkezpen atala izendatzeko hitz hauetako bat **okerra** da.
- aitzinsolas
 - atariko
 - gibel solas
 - hitzaurre
42. Zein da egokiena, honako hauen artean?
- Gure artean, E. Haeckelek (1834-1919) zabaldu zituen Darwinen ideiak.
 - Gure artean, E. Haeckelek (1834tik 1919ra) zabaldu zituen Darwinen ideiak.
 - Gure artean, E. Haeckelek —1834 1919 artean— zabaldu zituen Darwinen ideiak.
 - Gure artean, E. Haeckelek, 1834-1919, zabaldu zituen Darwinen ideiak.
43. Zein da esaldi zuzena?
- Liburua atzo erosi nuen. Koaderno atzo ere erosi nuen.
 - Liburua atzo erosi nuen. Koaderno atzo erosi nuen ere.
 - Liburua atzo erosi nuen. Koaderno ere atzo erosi nuen.
 - Liburua atzo erosi nuen. Koaderno atzo erosi ere egin nuen.
44. Zein da Euskaltzaindiak gomendatzen duena, honako hauen artean?
- Nafarroako Autonomia Elkartea
 - Nafarroako Foru Erkidegoa
 - Nafarroako Foru Komunitatea
 - Nafarroako Komunitate Forala
45. Zein da **oker** idatzia dagoena, honako hauen artean?
- Hogeita batgarren mendean aurkikuntza ikaragarriak ezagutuko omen ditugu.
 - Hor dituzu liburuak: hartu eta eraman ezazu 4.a, baina 5.a hemen utzi.
 - Juan Karlos I-ak esan du bakea behar dela Espainian.
 - XVII, XVIII eta XIX. mendeetan foruak indarrean egon ziren Euskal Herrian.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

46. Zein da **okerra**?

- a) Pozik ote dugu irakurlegoa ariketa hauekin?
- b) Pozik ote ditugu irakurleak ariketa hauekin?
- c) Pozik ote dugu irakurleria ariketa hauekin?
- d) Pozik ote dugu irakurle-jendea ariketa hauekin?

47. Zein da zuzen idatzia dagoena, honako hauen artean?

- a) Egundoko uholdea izan da: mendia eta itsasotik heldu da ura, aldi berean.
- b) Herri eta auzoetatik irten diren gehienak hiriburura joan dira bizitzera.
- c) Nagusia eta langilearen arteko harremana gatazkatsua zen leku hartan.
- d) Ni, zu eta beste lagunei gertatu zaigun arazo bera gertatu zaio beste hainbati ere.

48. Zein da zuzen idatzia dagoena, honako hauen artean?

- a) etor arazi
- b) etorrarazi
- c) etorri arazi
- d) etorriarazi

49. Zein dago **oker** euskara batuan?

- a) Hiru hilabeterik behin izaten ditugu azterketak.
- b) Hiru hilabetero izaten ditugu azterketak.
- c) Hiru hilabeteen behin izaten ditugu azterketak.
- d) Hiru hilabetetik hiru hilabetera izaten ditugu azterketak.

50. Zein esaldi da **okerra**?

- a) Elkarrekin ikusten ditudanean sutu egiten naiz.
- b) Elkar antzekoak dira horiek, ez egin kasurik!
- c) Elkarri adarra jotzen paregabeak dira.
- d) Elkar hartuta daude; ez dugu zer eginik!



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

ERANTZUN-ORRIA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2008KO EKAINAREN 2a)

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu, eta galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.



Sagardoaren jatorria: ikuspegi orokor bat

(iturria: SAGARDOA 2008. Sareko Argia)

Sagardoaren jatorriari buruzko iritzi eta teoria asko egon arren, historialari gehienak bat datoz sagardoa Kristo aurreko urteetan sortu zela esatean.

Egipto, Bizantzio eta greziar zibilizazioen garaian sagardoa edatea gustuko zuten. Garai haietaz ezagutzen diren testuetan sagarrondoek zuten protagonismo eta garrantzia antzeman daiteke: opari edo eskaintza baliotsuak egin behar zirenean sagarrondoak oparitzen ziren. Erromatarrek nahiago zuten ardoa sagardoa baino. Konkistatutako lurraldeetan ikusi zuten sagardoa egiteko zegoen ohitura. Haiek sendagai bezala erabili zuten sagardoa. Pliniok, enperadore erromatarra Asturiasen sartu zenean (23-79 K.o.), sagar ardoa "bertako edari tipikoa" zela esan omen zuen.

Beste hainbat ikertzailek, aldiz, zeltek sagarrekin egiten zuten edarian aurkitu zuten sagardoaren jatorria. Hauen arabera, zibilizazio honek Europan ezagutarazi zuen edari hau; nahiz eta arabiarrek izan ziren, nekazaritza sistema aurreratuak erabiliz, sagar klaseen zabaltzea bultzatu eta hauek ekoizteko teknikak Europa osora zabaltu zituztenak.

Jose Uria Irastorza "Sagardoa" liburuaren egilearen arabera, Euskal Herrian, VII. mendea baino lehenagoko estela eta bestelako inskripzioetan agertzen dira "sagar" erroa duten izen eta abizenak. Nafarroako Antso Handiak 1014. urtean Leireko monasterioari oparitu zizkion sagastiek argi erakusten dute garai urrun haietan sagarrekin zegoen zaletasuna. Dena den XIII. mendera arte ez dira izkribuak sagardo edariak mintzo. Garai hartako poema batean aipatzen da lehen aldiz euskaldunek itxura itsusiko sagarrekin egiten zuten muztio motela edo sagardoa.

Baina sagardoa Euskal Herrian ere egiten zen arren, Asturias izan da lehen garai haietatik sagardogintzan nagusi izan den lurraldea eta ez produkzioan bakarrik, baita edateko ohituran ere. Historikoki, sagardoa eta sagarrondoak elementu preziatuak izan dira lurralde horretan eta bertako erregeen edari maiteena izan da urtetan zehar. Herria zorren presiopean edo eskaintza bat egin beharrean zegoenean sagardoa izaten zen edukirik baliotsuenetakoa. Historiak erakutsi duenaren arabera, sagardogintzaren hazkundera erabat loturik dago herriaren egoera ekonomikoarekin eta kontsumoak igoera handiak ezagutu ditu onura ekonomikoko garaietan. Hala gertatu zen Asturiasen XII, XIII eta XVIII. mendeetan.

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
 (2008KO EKAINAREN 2a)**

1. Sagardoaren jatorriari dagokionez, esan ezazu, testuaren arabera, hauetako zein adierazpen EZ DEN EGIA:

- a) Oso antzinako garaietan (Kristoren jaiotzaren aurretik) bilatu behar dugu sagardoaren jatorria, ikertzaile gehienek ustez.
- b) Egiptoko, Bizantzioko eta Greziako zibilizazioek gustuko zuten sagardoa edatea, baita Erromako zibilizazioak ere.
- c) Hain estimatua zen antzinako garaietan sagarra, non oparitarako erabiltzen baitzen sagar-arbola.
- d) Asturiasen ere edaten omen zuten sagardoa Plinio enperadorearen garaietan.

2. Sagardoari buruzko testuan esaten denaren arabera, esan ezazu ondorengo adierazpen hauetatik zein EZ DEN EGIA:

- a) VII. mendea baino lehenagoko inskripzioetan agertzen dira Euskal Herrian sagarrari erreferentzia egiten dioten izen-abizenak.
- b) Sagarrak preziatuak ziren gure artean 1014. urtearen inguruan, oparitarako erabiltzen baitziren sagasti-sailak.
- c) XIII. mendera arteko izkribuak ez dira sagardoaz mintzo, eta horregatik uste da lehenago ez baizik harrezkero izan zela preziatua edari hori euskaldunen artean.
- d) Itxura itsusiko sagarrak erabiltzen zituzten sagardoa egiteko antzinako euskaldunek, poema batean jaso geratu denaren arabera.

3. Honako adierazpen hauetatik zein da egia, testuan jasotzen denaren arabera?

- a) Asturias eta Euskal Herria alderatuz gero, Asturiasen sagardo gehiago ekoizten da, baina edan Euskal Herrian gehiago edaten da.
- b) Sagardoa baliabide garrantzitsua izan da asturiarrentzat, besteak beste, makalaldi ekonomikoetatik ateratzeko.
- c) Larrialdi ekonomikoko garaietan, historiak erakutsi duenaren arabera, sagardoaren kontsumoak goera handiak ezagutu ditu.
- d) Euskal Herrian, sagardogintzaren hazkundera erabat loturik zegoen herriaren egoera ekonomikoarekin, XII, XIII eta XVIII. mendeetan.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2008KO EKAINAREN 2a)

Eskola inklusiboa: Gasteizko Ramon Bajo ikastetxea

(iturria: Larrun 110, ARGIA aldizkaria: 2007-05-27)

Hezkuntzari buruzko eztabaidetan zenbaitetan badirudi hezkuntzan oraindik dena egiteke daukagula, eskola inklusiboa eta kulturartekoa urrutiko utopia baino ez dela. Baina esan behar da hainbat ikastetxetan utopiarako bidean urrats sendoak egiten ari direla eta hezkuntzako hainbat profesionalak bere eguneroko jardueran ahaleginak egiten dituztela norabide horretan.

Haietako bat Ramon Bajo ikastetxea da eta Gasteizko Alde Zaharrean dago; ikastetxe hori da, hain zuzen, auzo horretan dagoen bakarra. Irakasleak, zuzendaritza taldea eta gurasoen elkarte biziki konprometituta daude kalitatezko hezkuntza inklusiboarekin, irakaskuntza arloko ikertzaileek egun defendatzen dituzten hezkuntza parametroen arabera: eskola txikia, tamaina humanokoa eta kudeaketa humanokoa, non partaideek pertenezia zentzua daukaten, bere ingurunean sustraituta, auzo-eskola izatearen zentzua aldarrikatzen duena, testuinguruarekin harreman oparoak sortzen dituen. Esan dezakegu eredu "ekologikoa" dela.

Larrun www.argia.com/larrun
110

**Biharko eskola:
gaitasunak lantzea
ardatz**



MAHAI-INGURUA

- Abel Ariznabarreta ■ Xabier Garagorri
- Maite Garcia ■ Arantza Loide

ESPRIENTZIAK
 • Amelia Barquin • Aitor Etxarte
 • Beatriz Ugarte • Eudine Gartzia eta Arantza Iruretagoiena

ARGIA

Eskolaren ezaugarri deigarriena da, ziur aski, etorkinen proportzio handia. Ikasleen %70 etorkinen seme-alabak dira —marokorak, sahararrak, algeriarrak eta hegoamerikarrak batez ere—; ijitoak kontatuta, gutxiengo etnikoen ikasleak kopuru osoaren %82 dira. Argi utzi behar da, baina, hori ez dela auzoaren konposizioa: etorkinen eta ijitoen kopurua ez da bertako populazioaren %20ra heltzen eta datu horrek argi azaltzen du eskolan gheztizazio prozesu bat gertatu dela eta auzoko familia autoktono ez ijitoek —auzoko gehienek— hiriko beste eskoletan matrikulatzen dituztela seme-alabak. Ikasle berriak etengabe heltzen dira eskolara: 2006-07 ikasturtean 40 ume baino gehiago iritsi dira matrikulazio epez kanpo, adin guztietakoak.

Eskola transformazio prozesuan dago murgilduta auzoaren eskakizunei egoki eta kalitatearekin erantzuteko ahaleginean. Prozesu horren alderdi garrantzitsu bat ereduaren aldaketa da. Duela lau urte D ereduko bi urteko gela bat abiatu zen bertan, Atik Drako aldaketari hasiera emanez. Uneotan haur hezkuntza guztia D ereduan eskaintzen da eta A eredu agortzen doa. Eredu bakarraren alde egin zen apustua, besteak beste ikastetxe batean bi eredu daudenean, umeak gizarte mailaren arabera eredu banatzearen arriskua dagoelako. Azaldu behar da ijitoen eta etorkinen familiek normaltasun osoz jarraitzen dutela umeak bertara eramaten, egun D ereduan. Auzoko autoktono ez ijitoak ere hasi dira —azkenik!— eskolan matrikulatzen.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

4. Eskola ereduak eta utopia. Zein da egia, testuaren arabera?

- a) Gasteizko Alde Zaharrean dauden eskola gehienak ez daude eskola inklusiboaren alde.
- b) Ramon Bajo ikastetxekoen ustetan eskola inklusiboa guztiz utopikoa da.
- c) Bere inguruan ongi txertatua dagoen eskola-ereduari esaten diogu “eredu ekologikoa”.
- d) Hezkuntza ikertzaileak ari dira Ramon Bajo ikastetxean eskolak ematen.

5. Ramon Bajo ikastetxeko ikasleria. Zein da egia, testuaren arabera?

- a) Bertoko ikasleak —etorkin ez direnak— ez dira %8ra iristen.
- b) Auzo horretan —Alde Zaharrean— %70 inguru dira etorkin.
- c) Eskola horretan %12 dira ijitoak.
- d) Oro har, bat datoz Ramon Bajoko ikasleriaren jatorria eta Alde Zaharreko populazioarena.

6. Zer da ghattizazioa, testuinguru honetan?

- a) Gutxiengo etnikoetako ikasleak eskola jakin bat edo batzuetan biltzea.
- b) Jatorri etniko bat edo besteko ikasleak eskola berean nahastea.
- c) Alde Zaharrean gertatu den aldaketa demografikoa, alegia, etorkinak nagusi izatea.
- d) Eskola hartan immigranteen seme-alabei lehentasuna eman eta bertokoak ez onartzea.

7. Aukeratu esaldi honen jarraipen egokia, testuak esaten duena kontuan hartuta: “Eskola horretan D hizkuntza-ereduaren alde egin dute. _____”

- a) Horren ondorioz, etorkin ez direnak ere hasi dira seme-alabak eskola horretara bidaltzen.
- b) Alabaina, etorkinek A ereduari matrikulatzen dituzte seme-alabak eskola horretan.
- c) Gaur egun, D ereduari besterik ez dago eskola horretan.
- d) Duela 4 urte desagertu zen A ereduari Ramon Bajo ikastetxean.


UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2008KO EKAINAREN 2a)

Berotegi efektua, zer da?

(iturria: Gribbin, John, Elhuyar aldizkaria 19, 1989-01-01)

Egunotan gertatzen diren eguraldi-aldaketa ustekabekoek, giza ekintzek eragindako berotegi efektua omen dute errudun. Dena den, berotegi efektua naturaren zati bat da, nahiz eta gizakiaren eraginak honen oreka kolokan ipini.

Aire-koltxoi batek inguratzen duelako, “nahikoa epela” da Lurra. “Nahikoa epela” izateak, Lurraren temperatura 0 °C eta 100 °C bitartean dagoela (urak likido irauten duen tartean alegia) esan nahi du. Hori horrela izanik, gure planetako temperaturak Ilargiarenarekin konparatzen baditugu Lurraren atmosferak erantzukizuna duela ikusiko dugu. Ilargia eta Lurra gutxi gorabehera distantzia berdiner daude Eguzkitik —Eguzki-sistemako beroturretatik—, baina Ilargia atmosferarik gabeko “planeta” da. Airerik gabeko Ilargian, temperatura 100 °C-raino igotzen da eguzki-galdatan eta -150 °C-raino jaisten da gauzez.



Ilargi-gainazalaren batez besteko temperatura -18 °C-koa da. Temperatura horretan, Ilargiak espaziora igortzen duen energiak, Eguzkitik jasotzen duena berdintzen du. Lurrak aire-koltxoirik izango ez balu eta Ilargia bezalako harrizko bola izango balitz, -18 °C-ko batez besteko gainazal-temperatura izango luke. Gure planetaren batez besteko gainazal-temperatura 15 °C-koa da. Aire-koltxoiak gure planetaren temperatura legokiokeena baino 33 °C epelago mantentzen du.

Berez, berotegi efektua ez da gauza txarra. Gizakiaren ikuspegitik egokiagoa da Izotz Aro berri bat baino. Arazoa da gizateriak ingurumen aldaketari aurre nola egin. Berotegi efektuaren ondorioz mundua aldatu egingo dela gauza segurua da. Zientzialariek joan den udan AEBetan egon den lehortea horren adibide moduan jartzen dute. Ez dirudi berotegi efektua denik horren erantzule bakarra; 1987ko uda 1988koa bezain epela izan baitzen. Baina, lehortearen kausa edozein delarik ere, Ipar Ameriketara XXI. mendea aurreratu ahala gerta daitekeen euri-murriztearen adierazle izan daiteke.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

8. Aire-koltxoi batez ari da testua? Zer adierazi nahi da hitz horrekin?

- a) Ilargia inguratzen duen geruza.
- b) Lurra inguratzen duen atmosfera.
- c) Oro har, planeta guztiak inguratzen dituen aire-multzoa.
- d) Giza ekintzaren ondoren Lurrean sortu den ingurua.

9. Zer temperatura dago Ilargian?

- a) Lurra baino beroagoa da Ilargia, atmosferarik ez duelako.
- b) Lurra baino hotzagoa da, Eguzkitik urrunago dagoelako.
- c) Urak likido irauten duen temperatura tartean egoten da ilargia.
- d) Lurra baino hotzago egon ohi da Ilargia gauez.

10. Ingurumen aldaketa dela eta. Zein da egia, testuak esaten duenaren arabera?

- a) Berotegi efektua gorabehera, gizakiak eragiten ditu aldaketarik handienak.
- b) Ez dirudi hurrengo urteetan mundua asko aldatuko denik.
- c) Izotz Aro berri bat izango da laster munduan.
- d) Giza eraginik gabe ere, berotegi efektuak mundua suntsituko du.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUNAK

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

3. ARIKETA: IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulua faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulua batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazaratu dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Arkitektura gaur egun	Arkitektura eta hirigintza
Artea	Arte-ikasketak	Arte-galeriak
Biologia	Taxonomia: nola sailkatzen dira izaki biziak?	Zelula motak
Ekonomia	Ekonomia-krisiak. Zergatik gertatzen dira?	Ekonomiaren planifikazioa
Filologia	Interpretearen lana	Hizkuntza estandar edo batuak
Filosofia	Filosofia lehen eta bigarren mailako irakaskuntzan	Nihilismoa
Fisika	Zer ikertzen du fisikak gaur egun?	Fisikaren zabalkunde edo dibulgazioa
Geografia	Lehen sektorea Euskal Herrian	Europa: geografia fisikoa
Geologia	Zumaiako flysch-a	Sumendiak
Gizarte zientziak	Zer aztertzen du soziologiak?	Demokrazia munduan gaur egun
Heziketa fisikoa	Bihotza eta ariketa fisikoa	Doppinga kirolean
Historia	Irak azken hogeitau urteetan	Zer dakizu euskal foruek?
Informatika	Software librea	Zer dira datu-baseak?
Informazioa	Konpara itzazu irratia eta telebista	Doan banatzen diren egunkariak
Kimika	Plastikoak	Zer da kimika organikoa?
Matematika	Matematika eta logika	Matematikaren historia laburra
Osasuna	Farmazialariaren lana gaur egun	Alergiak
Pedagogia	Irakaskuntza telematikoa	Eskola 0 eta 2 urte artean
Psikologia	Psikologia klinikoa	Neurketa tresnak psikologian
Teknologia	Energiaren sorkuntza eta erabilera	Makina-erreminta
Zuzenbidea	Administrazio-zuzenbidea	Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2008KO EKAINAREN 2a)**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA**

UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)		EZ GAI (< 32)

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)		EZ GAI (< 6)

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
 (2008KO EKAINAREN 2a)**
**UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

 Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: